

KALEKO LANTALDEA

Kalean lan egitea etxerik gabe edota etxebizitza desegokian dauden emakume, gizon eta bitarrak ez diren pertsonekin.

Bizitegi

Por una sociedad sin exclusiones
Bazterturik gabeko gizarterantz



Liburuxka honen asmoa da modu erraz eta laburtuan ezaugarritzea;

... zer den eta zein lan egiten duen Kaleko lantaldea, etxerik ez duten edota etxebizitza desegokia duten pertsonekin diharduena.

Bizitegi elkarteak 1999an jarri zuen martxan kalean esku hartzeko taldea, Bilboko Udalak hezitzaile bakarra kontratatzeko emandako diru-laguntzari esker. Etxerik gabekoentzat hastapenetan zeuden arreta-baliabideekin eta, espezifikoki, etxerik gabeko pertsonekin lan egiteko beharrak eraginda, Bizitegik esku-hartzerako lantalde eta eredu desberdin eta berritzaile baten aldeko apustua egin zuen, erreferentzia izan nahi zuena etxerik gabeko pertsonentzat.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KALEKO LANTALDEA



Kalea eta
Etxerik Gabeko
Personentzako
arreta-baliabideak.



Lantalde
mistoa (gizonak
eta emakumeak).



Gizarte
esku-hartzea
berrestatzailea.



Hurbiltasunezko
baliabidea.

**Etxerik gabeko pertsonekin kalean egiten den lana
uztartutako hiru ardatzen inguruan garatzen da:**

01 Errealitatea ezagutzea.

Etxerik gabeko eta etxebizitza
desegokia duten pertsonen egoera
ezagutzea.

KALEKO LANTALDEA

03 Zuzeneko esku-hartzea:

Etxerik gabeko eta
etxebizitza desegokia duten
pertsonekiko hartu-eman eta
esku-hartze jarraitua.

02 Lan komunitarioa:

Komunitatea helburu eta
erreferentzia gisa.

Esku-orri honetan esku-hartze zuzenaren ardatza garatuko dugu.

Zuzeneko esku-hartzea (Z.E.H.):

Zer da Z.E.H.a?

- Hartu-emana eta elkar-ekintza.
- Itenez eta konfiantzaz egindako jendarte-pedagogia.
- Errespetuzko esku-hartze ez intrusiboa.

Nondik?

- Pertsona guzti-guztien eskubideen eta duintasunaren ikuspegia.
- Esku-hartze sozial feministarako proposamena.
 - Pertsona erdigunean.
 - Erritmoak errespetatu eta aniztasuna onartu.
 - Desioa berreskuratzea.

Ikuspegi komunitarioa:

Komunitatea; gure esku-hartzearen erreferentzia, baliabide eta helburu.

Helburua:

Etixerik gabeko eta etxebizitza desegokia duten emakume, gizon eta pertsona ez-bitarrak aintzat hartu, duintasuna aitortu eta lagundu, haien aniztasuna kontuan hartuta.

- Informazioa eta orientazioa eman.
- Etixerik gabeko pertsonen komunitatearekiko, beste antolakundeekiko eta zerbitzu publikoekiko kontaktua eta harremana erraztea, gizarte- eta osasun-zerbitzuei lehentasuna emanez.
- Lantaldeak abiatutako esku-hartzeari jarraipena emango dion beste baliabide edo erakundera bideratzea.



Nortzuk dira Z.E.H.a hartzaileak?

01

- Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi-Bazterketaren Tipologiak (ETHOS) jasotzen dituen etxerik gabekoen edo etxebizitza desegokien kategorietakoak direnak.

02

- Hemezortzi urtetik gorakoak direnak.

03

- Zaurgarritasunik altueneko ezaugarriak dituztenak. Kontuan hartu beharreko lehen adierazlea emakume-generoa izanik:

- Kalean denbora luzea daraman pertsona.
- Gaixotasun mental larria.
- Dibertsitate funtzionala .
- Agurea dena.
- Pertsona arrazializatua dena.
- Atzerrikoa dena.
- Sexu-identitatean, adierazpenean edota orientazioan dibertsitatea.
- Adikzio problematikoak, substantziekin edo substantziarik gabe.
- Arazo judizialak.

Etxerik gabe edo etxebizitza desegokian egon gaitzkeen pertsonen artean, % 90 gizonak dira, eta % 10 baino ez dira emakumeak. Kaleko taldeak ez ditu emakume guztiak artatu behar. Horren arrazoia da emakumeei arreta emateko berriazko baliabideetara azkar bideratu ezin ditugun emakumeei soilik emango diegula arreta, lehen harremanen fasetik haratago.

Ezin bideratze horren arrazoiak izan daitezke nahi ez dutelako edo ezin dutelako, edo emakume izateaz haratago zaurgarritasun handiagoan jartzen dituzten ezaugarriek baliabide horiek eskuratzea oztopatzen eta eragozten dietelako.

1. Fasea: lehenengo hartu-emanak.

Helburua:

- Aurkeztea eta elkar ezagutzea.
- Oinarrizko premiak asetzeko informazioa eta orientazioa ematea.
- Pertsonaren egoeraren eta beharren lehen balorazioa egitea.

Lehen harreman-motak:

Zuzeneko harremana:

- Kalean edo etxebizitza desegokian.
- Ostatu eta jantoki baliabideetara egiten ditugun bisita eta laguntzetan.



Beste batzuen bitartez:

Gizarte-Eta Osasun-baliabideak

- Ostatuak
- Jantokiak
- Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua
- Eguneko zentroak
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak
- Osasun-zentroak
- Ospitalea

Baliabide Instituzionalak

- Udaletako gizarte-zerbitzuak
- Polizia

Baliabide Komunitarioak

- Migratuei eta bazterketa-egoeran daudenei laguntzeko taldeak
- Auzo-elkarteak
- Banakoak
- Etxerik gabekoak, kaleko taldeak ezagutzen dituenak



Metodologia:

Espazioaren baldintzak eta osagai esanguratsuak behatzea.

Errespetuzko hurbiltzea (baimena eskatuz) eta gure burua eta lanaren aurkezpen laburra.

Lehen elkarrizketak: zelan dagoen inguruko interesa adierazi eta entzutea.

2. Fasea: Elkarrekiko lotura.

Helburua:

- Bere desioa inspiratzea eta sustatzea ahalbideratuko digun harremana eraikitzea; motibatzea, beti ere, bere bizitza onaren kontzeptzio propioaren norabidean.
- Pertsona bakoitza komunitatearen, beste antolakundeen eta administrazio publikoaren ondasun eta zerbitzuekin harremanetan jartzea, gizarte- eta osasun-zerbitzuei lehentasuna emanez.

Metodologia:

Egotea eta egotea, denbora eman bere ingurune fisikoan eta bere bizitzan.

Babesa bilatu kaleko bere ingurukoaren artean.

Pribatutasuna sustatu egiazko solasaldiak eduki ahal izateko.

Entzutea eta entzutea: gustuak, indarguneak eta bizipenak ezagutzeko.

Sentipen eta pentsamenduen adierazpena balioztatzea, epaiketarik edo zuzeneko konfrontaziorik gabe.

Gaitasun, amets eta aukerei erreparatzea eta aitortzea.

Hitzik gabeko komunikazioa antzeman, premiak zein ahalmenak identifikatzeko.

Esku-hartzea egokitzea adina, genero, jatorria edota orientazio sexualaren arabera.

Oreka bilatzea, epaitzeko joera eta justifikatzeko joera sahiestuz.

Fidatu: elkarrekiko konfiantza eraiki, gurekin konta dezakeela sentiarazi.

Zintzoak izan gure lanaren helburuak, aukerak eta mugak argi adierazteko.

Bere premietarako lagungarriak izan daitezkeen baliabide eta pertsonengana bideratzea.

Berritu: ausartu aukera eta ibilbide berriak proposatzen.

Errespetatu erritmoak eta ezezkoak.

Informazio gaurkotua ematea eta zalantzak argitzeko gauza izatea.

Bitartekaritza egin gizarte-, osasun- eta epaitegietako zerbitzuekin

Informazio eta zalantza guztiak lantaldearekin partekatu eta kontrastatu, aholkua eta segurtasun profesionala eskurtazeko.

3. fasea: Elkarrekikoa deslotzea.

Helburua:

- Lantaldeak hasitako esku-hartzeari jarraipena emango dion baliabide edo erakunde batera bideratzea, beti ere pertsonarekin adosturik.
- Harreman profesionalaren amaiera modu egokian kudeatzea, deslotzea programatua den edo ez kontuan hartu gabe.

Motak:

Deslotze programatua:

- Deribatzea
- Bizimodu autonomora igarotzea

Deslotze ez-programatua:

- Heriotza
- Espetxeratzea
- Psikiatrikoan ingresatzea
- Desagertzea



Metodologia:

Pertsonarekin adostea beste erakunde batekin jarraitzeko momentua eta modua.

Aldaketak ekarriko dituen ondorio guztiak modu errez baina zehatzean azaltzea.

Epeak eta denborak argitzea eta itxaronaldiak laguntzea.

Gure esku-hartzearen balorazio kualitatiboa eskatzea.

Adostutako epeak eta prozedurak erregistratzea eta behin amaiturik baja ematea.

Esku-hartzearen amaieraren berri ematea gurekin batera aritu direnei.

Emozioak kudeatzea: deslotze ez-programatua bada galerak mugitzen diguna lantaldean partekatzea eta lantzea.

Dolua: omenaldi ekitaldia egitea pertsonaren duintasuna berresteko eta prozesua ixteko, horrelako heriotzarik sortuko ez duen jendartea aldarrikatzeari utzi gabe.

Benetan sinesten dugu esku-hartzearen ikuspegi horretan, pertsona guzti-guztiei dagokien duintasuna aitortuta, eta pertsona bakoitzak ditugun inguruabar, desio eta giza baldintzen aniztasuna aintzat hartuko dituen bidelaguntza emanda.

Hortaz, gure iritziz, proposamen honek profesionalen eta lantaldeen nolabaiteko berrikuspena dakar berarekin, zalantzan jarri eta deseraiki beharko ditugun praktikak eta inertiak identifikatu ahal izateko. Beraz, gizarte-aldaketetara nahitaez egokitu beharko den proposamen dinamikoa da, etxerik gabeko pertsoneri arretaz entzunez eta lantaldeek etengabe hausnartzuz egokitu beharko den proposamena.

Eskuartean duzun material hau bada, hain zuzen ere, Bizitegiko Kaleko lantaldeak sustatutako gogoeta-ekintza prozesu baten emaitza, unibertsitateetako ikerketa-taldeekin eta entitate zein erakunde ezberdinen laguntzarekin burututakoa.

Esan dezakegu, azkenik, lantaldearen 20 urte baino gehiago igaro ondoren, etxerik gabeko eta etxebizitza desegokia duten gizonekin, emakumeekin eta bitarrak ez diren pertsonekin ingurune irekian esku hartzeko Bizitegiren lantaldea erreferentzia dela etxerik gabe dauden pertsonentzat eta horiek artatzen dituzten baliabideentzat.